

• Txirrindularitza

Frantziako Tourra: Bilbon hasiko da 2001eko nesken Tourra, abuztuaren 5ean, eta Bilbo-Gernika korrituko da hurrengo egunean → **36**



• Izotz-hockeya

Hormadi: Gaur irabazi beharra dio Roueni kanporaketako hirugarren partidan (20:00), bestela Ligatik at geratu da → **38**

Reala ♦ Bazkideen artean sortu den zalapartagatik aldatu du klubeko zuzendaritzak erabakia

Urangak atzera egin du

Realeko presidentek esan du «batasuna» nahi duela azken txanpa honetan, eta Athleticen aurka bazkideek ez dute ordainduko



Luis Uranga Realeko presidentea, lehengo asteko prentsaurrekoan, Zubietan. Atzo Anoeta estadioan mintzatu zen, zuzendaritzako kide batzuez lagunduta.

Jon Balenziaga / Donostia

◀ REALEKO bazkideek azkenean ez dute ordainduko taldeak apirilaren 16an Athleticen aurka jokatu duen partiduan. Aurreko astean Administrazio Kontseiluak klubaren egun erdiztat izendatu zuen partidua, baina protesta ugari entzun zituen, eta atzo Luis Uranga Realeko presidentek prentsaurrekoa

eman zuen erabaki aldaketaren berri emanez. «Administrazio Kontseilua oso harrituta dago aurreko astean hartutako erabakiak sortu duen istiluarekin. Zalaparta hau sortuko zela jakin izan bagenu, ez genukeen erabaki hura hartuko. Oraindik ere neurri egokia hartu genuela uste dugu, baina ika-mikak ez dira batere egokiak taldearentzat. Arlo ekonomikoa

hitz bitan

Askotan hitz egiten: Uranga izango da jendaurreko agerraldi gutxien egiten duen presidentea agian. Baina azkenaldian askotan ari da hitz egiten. Azkeneko astebetean bi aldiz mintzatu da. Gauzak ondo ez doazen seinale.

eta kirol arloa nahastea ez dela egokia esan genuen aurreko astean; orain, ordea, biak nahastera goaz polemika hori dela eta. Gure nahia sortu diren istiluak ahaztu eta taldearenganako batasuna izatea denez, guztiok taldea bultzatzen jarraitzeko bazkideen egun erdia kentzea erabaki dugu. Nahiz eta uste lehen egin asmo genuena egokiena dela».

puntuz puntu

Nola berreskuratu dirua edo nola ez ordaindu?

■ Iñaki Otegi gerentea ere izan zen prentsaurrekoan, eta sarreretako dirua nola berreskuratu edo nola ez ordaindu azaldu zuen.

Bankuan helbideratutakoek

► **Kutxakoek** • 14.481 abonatu dira. Realak hilaren 24an kobratu zien, baina atzo bertan itzuli zien, 24ko egunarekin, dirutan aldaketarik egon ez dadin.

Besteetakoek • Prozesu luzeagoa denez, atzo ezin izan zitzaizen itzuli dirua, baina asteon egingo zaie, hilaren 24ko egunarekin.

Bankuan helbideratu gabeek

► **Donostiarrek** • 1.600 dira. Gutuna bidali zitzaizen Kutxara joan eta dirua sarrezaten. Epea, hasiera batean, apirilaren 10a artekoa zuten, baina epe hori aldatu eta martxoaren 24koa jarri da. Ondorioz, ordaintzera joaterakoan, ezingo dute ordaindu, sistemak ez dielako utziko.

Probintziakoek • Mila dira. Ez zaie gutuna bidaliko. Beraz, ez dute ordaintzeko arriskurik izango.

Urangaren ustez, larunbatean Valladoliden aurka galdu izanak ez du eraginik izan neurri berri hau hartzerakotan. «Ez du eraginik. Ez genuen uste sortu den zalaparta sortuko zenik. Astebu-